

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak eta Torres kontseilariak Nafarroako XIV. Gazte Sariak eman dituzte

*San Adriango Maitane eta Asier Castillo eta Laura González, "Motxila 21" down sindromea dutenen gazte elkarte eta Gazte Kontseilua izan dira sarituak*

Miércoles, 30 de noviembre de 2011

Yolanda Barcina Angulo Nafarroako Lehendakariak eta Elena Torres Miranda Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria kontseilariak Nafarroako 2011 Gazte Sariak entregatu dituzte gaur Nafarroako Jauregian egin den ekitaldi batean. Sariak Nafarroako Gazteria Institutuak ematen ditu eta gazteen bizi kalitatea, autonomia eta gizarte partaidetza sustatzen duten pertsona eta elkarten lana eta ibilbidea aintzatesten dituzte.



Barcina Lehendakaria eta Torres kontseilaria sarituekin.

XIV. edizio honetan, saridunak ondokoak izan dira: San Adriango Maitane eta Asier Castillo eta Laura González, "Motxila 21" down sindromea dutenen gazte elkarte eta Nafarroako Gazte Kontseilua.

Maitane Castillo eta Asier Castillo anai-arrebek eta azken honen neska lagun Laura Gonzálezek jaso dute **Gazte Saria**, joan zen ekainean Tarragonako Segur de Calafell herrian itotzeaz zegoen 75 urteko emakume bat salbatzerakoan erakutsi zuten adore eta elkartasunagatik. Maitane Castillo soroslea da eta, beste bi gazteekin elkarlanean, emakumea uretik ateratzea lortu zuen. Honen senarrak ohartarazi zien emakumearen estutasunaz (ahulduta, uretik irten ezinik zebilen) eta hiru gazteek erreskatatzea lortu zuten, euren bizitza arriskuan jarritz.

Maitane Castillok 23 urte ditu eta Psikologia ikasketak burutzen ari da. Asier Castillok 27 urte dauka eta San Adriango enpresa bateko mantenimendu langilea da. Laura Gonzálezek, azkenik, 29 urte ditu.

Bestalde, "Motxila 21" gazte elkarteak lortu du **Gizarte Partaidetza Saria**. Nafarroako Down Sindromea dutenen Elkarteko kideez osaturiko musika taldea da. Zehazki, down sindromea duten 18 eta 30 urte arteko 12 gaztek eta 8 boluntariok osatzen dute. 2005. urtean sortu zen taldea, hainbat senitartekok musika eta menpekotasunaren inguruan zuten interesari lotuta. Ondoren, zenbait musikari eta boluntario gehitu ziren ekimenera. Denak boluntarioak dira eta ez dute lan honekin dirurik irabazten.



Motxila 21 elkarteari eman zaio saria.

Besteak beste, el Drogas Barricada taldeko kantariaren eta Marea taldeko Piñas eta Kutxiren laguntza izan dute. Euren lehen ikuskizun handia 2010. urtean eskaini zuten, Iruñako Gayarre Antzokian, "Eszena eta Menpekotasuna" zikloaren barruan. 2011. urte honetan hainbat kontzertu eman dituzte, Agoitz, Berbinzana, Erronkari edo azken Nafarroa Oinezen, Tafallan. Ekainaren 16an, gainera, Urteko Musika Ibilbide Onenaren Saria jaso zuten Nafarroako VII. Musika Jaialdian.

Azkenik, Nafarroako Gazte Kontseiluari eman diote **Erakundearen Saria**. Duela 25 urte sortu zen erakunde hau gazteen eskubideak defendatu eta Nafarroako politika, gizarte, ekonomia eta kultur garapenean gazteen partaidetza sustatzeko helburuarekin.

Gazteriaren 11/2011 Foru Legeak zeregin berriak egotzi dizkio eta bere eginkizuna sendotu du, bai Nafarroako gazteen goi ordezkari gisa, baita Administrazioarekin harremanetarako solaskide gisa ere, gazteekin zerikusia duten politika publikoen elaborazio, garapen eta ebaluazioan.

25 urte hauetan, Nafarroako Gazte Kontseiluak jarduera eta ekimen ugari bultzatu ditu. Horien artean aipatzekoak bakea eta kontzientzia eragozpenaren aldeko mugimenduan izandako parte-hartzea, asoziazionismoaren egunen antolaketa, "Gozamenez" izeneko gazteria eta sexu heziketa programari emandako bultzada eta "Elkaso" gazte elkarten urteroko azokaren antolakuntza. Gaur egun, 73 elkarte osaturik dago eta 20.000 gazte inguru ordezkatzeko dituzte. Bost arlotan egiten du lan: asoziazionismoa, osasuna, gizarte eta ekonomia, berdintasuna eta garapen jasagarria.

## Galería de fotos



Asier eta Maitane Castillo eta Laura González sarituak izan dira.